

EKINTZA ESTRATEGIKOAK 2014

BERDINBIDEAN ARABA-ÁLAVA Zerbitzua

1. Aurkezpena

Dokumentu honetan Arabako 5.000 biztanle baino gutxiagoko herriei zuzenduriko hainbat ekintza aurkezten dizuegu. Proposamen hau Berdinbidean Araba-Álava Zerbitzuaren baitan kokatzen da eta Emakunde eta Eudelen arteko lankidetzaren fruitua da. Hitzarmen honek eranstean dituen baliabide ekonomikoei esker hiru lurralde historietan esku-hartzeko aukerak indartzen ditu.

Berdinbidean programa EAEko hiru lurralde historikoetan burutzen den eta hiru foru aldundiek bultzatzen duten programa da. Programaren helburua herri txikietan emakume eta gizonen berdintasunerako politiken sustapena da. Arabako Lurralde Historikoari dagokionez, Arabako Foru Aldundiak finantzatzen duen Zerbitzuaren bidez, 5.000 biztanle baino gutxiagoko herriei aholkularitza eta laguntza eskaintzen zaie.

Herri txikiei zuzenduriko aholkularitza zerbitzua sortzeko beharra herri txikiek emakume eta gizonen berdintasunerako politikak garatzeko eta beste administrazio batzuetatik kudeatzen diren baliabideak eskuratzeko dituzten zailtasunetatik dator.

Ekintza estrategikoak Araban

Ekintza estrategikoen bidez Arabako herri txikietan emakume eta gizonen berdintasunari lotuta dauden prozesuak indartzea edo prozesu berriak sortzea bilatzen da.

Aurkezten dizuegun ekintzen proposamenak ondorengo **lan ildoak** barneratzen ditu:

- Gizon eta emakumeen arteko berdintasun esparruko ordenantzak.
- Jaiak genero ikuspuntutik.
- Indarkeria sexistaren prebentzioa gazteen artean – Beldur Barik Programaren sustapena.

Edukiak: Lan ildoen deskribapena, eskaintzen diren ekintzak, parte hartzeko baldintza eta izapideak.

2. Lan ildoak

2.1. Gizon eta emakumeen arteko berdintasun esparruko ordenantza

Tokiko erakundeen artean araubidea emakume eta gizonen berdintasunerako politikak sendotzeko tresna baliagarri bat bihurtzen ari da, sakontasun eta sendotasun handiagoa duten politika publikoak garatzeko aukera eskaintzan baitu. Zentzu honetan, ordenantzek tokiko politiken esparru orokorrean berdintasunerako politikei, bai sinbolikoki zein praktikoki, garrantzi handiago eskaintzen die eta, era berean, tokiko gobernuei genero ikuspegia barneratzen laguntzeko eta berdintasunerako politikak garatzeko tresna eraginkorrak dira.

Helburua: Udalerrri txikien errealitate eta aukerak kontutan harturik, emakume eta gizonen arteko berdintasun esparruko ordenantza bat garatzeko oinarritzko ezagutzak eskuratzea.

Esperientziak Araban: Bi udalerriek gizon eta emakumeen arteko berdintasun esparruko ordenantza bat garatzeko prozesu bat martxan jarri berri dute – Amurrio eta Kanpezu –. Kanpezun prozesuak Berdinbidean Zerbitzuaren laguntza izan du.

2.1.1. Saioen deskribapena

Nori zuzendua: Udalerrri txikietako teknikari eta politikariak.

Ezaugarriak: 4 orduko prestakuntza 2 orduko bi saiotan bananduta.

Edukiak

Lehen saioa

- Berdintasun esparruko ordenantzen ezaugarriak eta ordenantzak garatzeko beharrezkoak diren baldintzak.
- Udalerrri txikietan egon diren esperientziak.

Bigarren saioa

- Udalerrri bakoitzaren aukerak eta errealitatea kontutan harturik gizon eta emakumeen arteko berdintasun esparruko ordenantza batek barneratu ditzakeen eremu desberdinak identifikatzea.

Eskatuko den konpromisoa eta baldintzak

- Barne deialdia egin eta parte-hartzea konfirmatu gutxienez bi aste lehenago.
- Saioa egiteko leku egoki bat eskaini.

Aurreikusten den egutegia

2014. urteko irailetik abendura.

2.2. Jaiak genero ikuspuntutik

Jaiak duten nortasunari loturiko izaera kulturalaren ondorioz errealitate soziala isladatzen duen eta egunerokotasunean eragina duen adierazpen soziokultural bat bilakatzen dira. Hau dela eta genero harremanen analisirako eta emakume eta gizonen berdintasuna bultzatzeko oinarritzko esparru bat dira. Zentzu honetan, adierazgarriak dira lan eremu honen inguruan EAEn burutu diren ikerketa eta ekimen desberdinak.

Helburua: Jaiak genero ikuspuntutik garatzeko interesa duten udalerriei txikiei edo/eta koadrilei zuzendurik hausnarketarako eta oinarritzko ezagutzak eskuratzeko lan esparrua eskaintzea.

2.2.1. Saioen deskribapena

Nori zuzendua: Udalerrri txikietako teknikariak, politikariak eta jaien antolaketan murgildurik dauden herritarrak.

Ezaugarriak: Bi orduko saio bat eta hiru orduko beste saio bat.

Edukiak

Lehen saioa

- Jaiak genero ikuspuntutik antolatzeko martxan jarri diren ekimen desberdinen inguruko informazioa.
- Lan ildo honen inguruan prozesu bat martxan jartzeko metodologiaren aurkezpena eta aukera desberdinen inguruko sarrera.
- Emakume eta gizonen berdintasuna bultzatzeko ekimen hauek eskaintzen dituzten aukeren analisia.

Bigarren saioa

- Metodologia proposamena erabiliz jaien programazio zehatz bat aztertu.

Eskatuko den konpromisoa eta baldintzak

- Barne deialdia egin eta parte-hartzea konfirmatu gutxienez bi aste lehenago.
- Saioa egiteko leku egoki bat eskaini.

Aurreikusten den egutegia

2014. urteko irailetik abendura.

2.3. Beldur Barik Programa – gazteei zuzenduriko indarkeria sexistaren prebentzioa

Beldur Barik Emakundek koordinatzen duen eta Eudelek eta hiru lurraldeetako aldundiek laguntzen duten urtero burutzen den programa bat da. Helburua gazteen artean berdintasuna, errespetua, autonomia eta askatasuna bultzatzea da.

Udalerrietan burutzen diren tokiko ekimenak programaren oinarria dira. Ekimen hauek Berdinsarearen – Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sarea – laguntza dute.

Beldur Barik programaren baitan burutzen diren ekimen desberdinen bidez *Beldur Barik Jarrerak* indartzeko gazteen artean hausnarketarako prozesuak martxan jarri nahi dira. Hau da, gazteek gaur egun bizi duten egunerokotasunean oinarrituriko hausnarketa abiapuntutzat izanik helburua eraso sexisten kontrako adierazpen desberdinak sustatzea izango litzateke. Zentzu honetan, neska eta mutilek aurre egin behar dieten egoera sexista desberdinak beldur barik identifikatu eta hauen inguruan hitz egin dezaten bultzatzen da. Era berean, dituzten harremanak autonomia eta errespetuan oinarriturik eta askatasunean gozatzeko estrategia eta alternatibak garatu dezaten sustatzen da.

Helburua: Gazteen artean berdintasunean oinarrituriko jarrerak bultzatzea eta indarkeria sexistaren prebentzioa sustatzea.

Beldur Barik jarreraren inguruko ikastaroak: Hauetan, adierazpen era desberdinen bidez, neska eta mutil gazteen artean hausnarketa bultzatuko da. Tailerrak gazteen elkarguneetan burutuko dira, hau da, gazteleku, gaztetze, lokalak edo antzekoetan. Ondorengo tailerrak eskaintzen dira:

2.3.1. Komiki Mundiala:

Tailerra Beldur Barik Spota (www.beldurbarik.org) ikusi ondoren bertan azaltzen diren edukien hausnarketarekin hasten da. Isladatu nahi diren eduki eta irudiak aukeratu ondoren, talde lanaren bidez burutuko den eta forma desberdinak izan ditzakeen mulara egingo dute gazteek.

Tailer honen helburua desberdintasun egoerak identifikatu ahal izateko hausnarketa bultzatzea da. Zentzu honetan, helburua talde lanaren bidez neska eta mutil gazteek **emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko baliabideak sortu** ditzaten izango da.

Bestalde, talde sormenaren bidez **talde lanaren** kontzeptua indartu nahi da. Hau da, mural bat sortzeko behar den denbora gazte bakoitzaren esperientzien inguruan dituzten pertzepzio indibidual eta kolektiboek buruzko hizketaldia pizteko momentu egokia da.

Ekintzaren deskribapena

Lehen saioa: aurkezpena eta hausnarketa

Hausnarketa eta eztabaidarako 2 orduko saioa.

Bigarren saioa: murala egiten

Murala sortzeko 5 orduko talde lana.

Nori zuzendua:

12-17 edo 18-26 adin tarteko gazteak.

Edukiak

- Ekintzaren aurkezpena.
- Hausnarketa dinamika web orrian eskegita dagoen Spota abiapuntutzat harturik.
- Aukeratu den irudiaren arabera murala egingo da.

Eskatuko den konpromisoa eta baldintzak

- Deialdia egin eta parte-hartzea konfirmatu gutxienez bi aste lehenago.
- Saioa egiteko leku egoki bat eskaini.
- Murala egiteko horma edo antzeko euskarria eskaini eta beharrezkoak izan daitezkeen baimenak eskatu.
- Adingabekoak parte hartu ezker beraien tutore legalak informatu.

Aurreikusten den egutegia

2014. urteko irailetik abendura.

2.3.2. Rap tailerra

Musika gazteek erraz konektatzen duten adierazpen era bat da. Rap musika, orokorrean, irudi maskulinorekin loturik egon bada ere gizartearen eredu nagusiak zalantzan jartzeko adierazpen espresio hau bereganatu duten emakumeak gero eta ugariagoak dira. Egora honek musika eszenatokiarekin loturik dauden aurreiritzi sexistak apurtzea lagundu du.

Ekintzaren deskribapena

Nori zuzendua: 12-17 edo 18-26 adin tarteko neskak.

Ezaugarriak: 4 orduko saioa.

Edukiak:

- Emakumeen lana ezkutatzen duen istorio ezagunetik hasi eta mundu mailan emakume artisten lana erakusten duen ikuspegi errealago batean oinarritutako irakurketa historikoa.
- Tailerra amaitzeko abestien sormenerako oinarritzko jarraibideak landuko dira.

Eskatuko den konpromisoa eta baldintzak

- Deialdia egin eta parte-hartzea konfirmatu gutxienez bi aste lehenago.
- Saioa egiteko leku egoki bat eskaini.
- Adingabekoak parte hartu ezker beraien tutore legalak informatu.

Aurreikusten den egutegia

2014. urteko irailetik abendura.

2.3.3. Autodefentsa Feminista

Autodefentsa Feministaren bidez egunerokotasunean indarrean dauden jarrera eta portaera sexistak identifikatzen ikasten da. Hau genero indarkeriarekin amaitzeko lehen pausoa da, gure ingurune hurbilean transmititzen eta indartzen den indarkeria antzematen laguntzen digulako. Helburua, “biktima-objetu” izatetik “pertsona-sujetu” izatera iristeko eraso sexistei era indibidual edo kolektiboan aurre egiteko gai izatea da.

Ekintzaren deskribapena

Nori zuzendua: 15-26 adin tarteko neskak.

Ezaugarriak: 5 orduko saio bat edo 2 ordu eta erdiko bi saio burutu ahalko dira.

Edukiak

- Indarkeri matxistaren identifikazioa, prebentzioa eta aurre egiteko irtenbideak.
- Maitasun erromantikoaren ereduaren alternatibarako eta harreman onerako estrategiak.

Eskatuko den konpromisoa eta baldintzak

- Deialdia egin eta parte-hartzea konfirmatu gutxienez bi aste lehenago.
- Saioa egiteko leku egoki bat eskaini.
- Adingabekoak parte hartu ezkerre beraien tutore legalak informatu.

Aurreikusten den egutegia

2014. urteko irailetik abendura.

Ekintzen eskaera

Ekintzen eskaera egiteko epea **2014. urteko irailaren 17an** amaituko da.

Eskaerak ondorengo helbide elektronikoaren bidez burutu behar dira: berdinbideanekintzak@eudel.net

Eskaera guztiak jaso ondoren, eta dauden baliabideak kontutan harturik, saioak burutzeko udalerri desberdinak biltzea baloratuko da.

Eskaeren lehentasuna jasotako dataren arabera ezarriko da. Lehentasuna emango zaie baita ere emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko, udalek eta koadrilek 2014ko ekitaldian sustatutako programak edota jarduerak garatzea helburutzat duten AFAko diru-laguntzarik jaso ez duten udalerriei.

Irailaren 18tik aurrera eskaerak aurkeztu duten pertsonekin kontaktuan jarriko gara saioen egutegia eta kokapen geografikoa zehazteko.

Eskaintzen diren saio guztiak **doakoak** dira. Udalerrri bakoitzak **bi ekintza** eskatu ditzake: gazteei zuzenduriko ekintzen artean bat eta udal erakundeen teknikari eta politikariei zuzenduriko beste bat.

Edozein zalantza argitzeko ondorengo helbideetara idatzi dezakezue:

berdinbideanekintzak@eudel.net
araba@berdinbidean.net

Eta telefono honetara ere deitu dezakezue: 608 367 608

